

GIL 28 Deba-Zumaiako flysch hareatsua, Goi Kretazeokoa



Goi Kretazeoko flysch hareatsuaren panoramika bat, Pikote ingurutik (Campaniarra).

Kokapena

- **Koordenatu geografikoak:**

Lat.: 43° 17' 46,66" N
Long.: 2° 18' 31,80" W

- **UTM koordenatuak:**

X: 556.064,17 m
Y: 4.794.051,51 ma



Nola iritsi

Zumaiatik, joan autoz San Telmo ermitaraino, eta jarraitu oinez bidezidor batetik Algorri gailurreraino (NW norabidean, itsaso aldera), Algorriko kala txikira iritsi arte. Handik, segitu oinez plataforman, hego-ekialderantz, ebakiduran beherantz.

N-634 errepidean, desbideratu Elorriaga auzo eta olgetagunerantz, eta, handik, jarraitu Elorriagako begiratokira eramango gaituen bidexkari, edo, bestela, jaitsi Aitzuriko senadira.

N-634 errepidean, desbideratu Errotaberri olgetagunerantz, eta, handik, jarraitu Portu-txikiko begiratokira eramango gaituen bidexkari.



Goi Kretazeoko flysch hareatsua-ren labarrak eta marearteko zabalgunea, Aizbeltza eta Portutxiki inguruan (Campaniarra).

GILaren deskribapen laburra

Flysch hareatsuari —Aginaga formazioa ere baderitzo (Mathey, 1987)— turbidita-geruza asko izateagatik ematen zaio izendapen hori. Geruza horiek lodiagoak eta sarriagoak dira beheko herenean. Sakonetako senadiaren eta Pikote Azpiaren artean azaleratzen da, Aitzuriko senadi guztia barnean dela.

Formazio horretako arrokek 83-68 milioi urte dituzte (Campaniar-Maastrichtiarra), eta Pirinioak eratu zituzten lehen konpresio-higadurekin batera metatu ziren. Esfortzu horiek goragune dezente sorrarazi zituzten, eta, goraguneak higatzean, asko ugaritu ziren arro sedimentarioetara turbidita gisa iristen ziren material terrigenoak.

Arroka horietan, halaber, fosil (mikro eta makro) eta aztarna (iknofosilak) ugari daude. Makrofosilen artean daude, esaterako, ekinidoak, ostreidoak, ammonoideoak eta inozeramidoak, eta iknofosilen artean, *Lorenzina*, *Helminthoida*, *Subphyllocorda* eta *Spirophycus* generoak, besteak beste.

Behatzeko punturik onena

Algorriko begiratokia, Elorriagako begiratokia edo Portutxikiko begiratokia



Sekzio honetan aurkitutako *zoofiko* osoenetako baten xehetasuna.



Desagerpenetik gertu dagoen inozeramido baten xehetasuna.

Erlazionatutako GILak

- **Geografikoki:** GIL 27, GIL 28, GIL 43, GIL 45, GIL 101, GIL 48, GIL 103, GIL 135.
- **Gaiari dagokionez:** GIL 26, GIL 27, GIL 43, GIL 44, GIL 45, GIL 118.

GIL-aren balorazioa

Balorazioa		Baxua	Ertaina	Altua	Oso altua
Interes zientifikoa	Geomorfologikoa				
	Hidrogeologikoa				
	Tektoniko/Estrukturala				
	Estratigrafikoa			●	
	Paleontologikoa			●	
	Petrologikoa				
	Mineral-hobiak				
	Beste batzuk				
Interes ekonomikoa (erauzketa)			Iraganean	Potentziala	Martxan
Interes kulturala:					
Oharrak:	Maastrichtiar adin osoa hartzen du ebakidurak. Sekzioa, iknofosil, ekinido eta ammoniteak edukitzeaz gainera, garrantzitsua da inozeramidoen desagerpenaren erregistroa daukalako, eta ammoniteen desagertzea aztertzeko mundu mailako azaleratze giltzarrietako bat delako. Eremua bat dator geografikoki GIL 102arekin (interes geomorfologiko hutsekoa).				

Bibliografia espezifikoa

- Baceta, J. I., Orue.Etxebarria, X., Apellaniz, E. (2010). "El flysch entre Deba y Zumaia". Enseñanza de las Ciencias de la Tierra, 18 (3), 269-283 (2010).
- Gómez de Llarena, J. (1946). "Revisión de algunos datos paleontológicos del Flysch Cretáceo y Numulítico de Guipúzcoa". Notas y Comunicaciones del Instituto Geológico y Minero de España, 15, 109-165.
- Gómez de Llarena, J. (1949). "Datos paleoicnológicos". Notas y Comunicaciones del Instituto Geológico y Minero de España, 19, 115-127.
- Gómez de Llarena, J. (1954-56). "Observaciones geológicas en el Flysch Cretácico-Numulítico de Guipúzcoa". Monografía Inst. "Lucas Mallada", Invest. Geol., I. liburukia, 98. or. eta II. liburukia, 47. or.
- Gómez-Alday, J. J. (2002). Inocerámidos (Bivalvia), *Diagénesis e implicaciones paleoambientales. Maastrichtense inferior*. Golfo de Vizcaya. País Vasco. Tesis Doctoral, Euskal Herriko Unibertsitatea, 232. or.
- Leszczynski, S. (1991). "Trace-fossil tiering in flysch sediments : examples from the guipúzcoan flysch (Cretaceous-Paleogene), northern Spain". Palaeog., Palaeocl., Palaeocol., 88 (3-4), 167-184.
- Rosell, J., Remacha, E., Zamorano, M., Gabaldón, V. (1985). "La serie turbidítica del Cretácico superior del País Vasco". Boletín Geológico y Minero, 96, 361-366. or.